## ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezen.

| | |
|---|---|
| **1. Erakundearen izena:** | Farmazia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) |
| **2. Sektorea:** | Irakaskuntza |
| **3. Langile kopurua:** | 272 |
| **4. Webgunea:** | https://www.ehu.eus/es/web/farmazia-fakultatea |
| **5. Erakundearen jardueraren deskribapena:** (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak…): | UPV/EHUko Farmazia Fakultatean 4 gradu (Farmazia, Giza Nutrizioa eta Dietetika, Ingurumen Zientziak eta Elikagaien Zientzia eta Teknologia), gradu bikoitz bat (Farmazia eta Giza Nutrizioa eta Dietetika) eta 4 graduondoko (Analisi Forentsea, Elikadura-kalitatea eta Segurtasuna, Enologia Berritzailea eta Elikadura eta Osasuna) irakasten dira. |

### Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da**:**

| | |
|---|---|
| **Solaskidearen izen-abizenak:** | Nerea Osinalde Moraleja |
| **Helbide elektronikoa:** | nerea.osinalde@ehu.eus |
| **Telefonoa:** | 945 01 3097, 945 01 3009 |

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren titulua:** | Langile euskaldunen identifikazioa |
| **2. Praktika onaren azalpena:**<br><br>**Zer da? Zertan datza?**<br><br>**Nondik dator?**<br><br>**Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?** | Euskaraz jarduteko ahalmena daukaten langileek beren lanpostuetan hiruki identifikatzaile bat daukate. Hirukia jartzen den aldearen arabera irakur daiteke:<br><br>(i) **Nirekin euskaraz hitz egin dezakezu, nahi baduzu**<br><br>(ii) **Nirekin euskaraz hitz egin dezakezu, baina poliki, mesedez**<br><br>Hortaz, langileak erabakitzen du, bere euskara gaitasunaren arabera, ze esaldi erakutsi gainerakoei.<br><br>Askotan, jendeak ezezagunekin lehendabizi espainolez mintzatzeko joera dauka, besteak euskara jakingo ez duelakoan. Identifikazio honekin hori ekidin nahi dugu. Horrez gain, euskara maila apala izan arren euskaraz aritzeko nahia daukaten horiek identifikatzeko ere balio du identifikatzaileak. Horri esker, hainbat langileren arteko hartu emana, batez ere euskaldun zahar eta berrien artekoa, urte luzez espainolez izan dena, orain euskaraz izatea lortu dugu. |

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK…

**(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)**




